

2017ko MEMORIA

Egoera ahulenean dauden pertsonak dira gure misio nagusia, haiek dira harrera egiteko eta laguntza emateko gure lanaren ardatza eta, gainera, haiekin batera eraiki nahi dugu gizarte gizatiarrago bat.

PERTSONAK:

- **23.479 pertsonari LAGUNDU ZAIE¹**
- Gure giza laguntzarako sare soziala eta indargunea: **1.021 pertsona BOLUNTARIO.**
- **Arreta zuzenean inbertituz: 3.196.909€**
- Laguntzen HELBURU nagusia: etxebizitza, biziraupena eta enplegua.
- Guztizko INBERTSIOA: **11.168.932€**
- **%82 funts propioak. %18 funts publikoak (Foru Aldundia).**

DATU HORIEN GURE BALORAZIOA, ARTATZEN DITUGUN PERTSONEN IBILBIDEA:

- 2014. urtetik hona gertatu den moduan, 2017an ere gutxitu egin da lagundutako pertsonen kopurua, baina oraindik ere urrun dago duela 10 urte gure laguntza jasotzen zuen pertsonen kopuru hura.
- Beraz, egoera sozialak nolabait hobera egin duela berresten dute datuek, enpresa-jarduerari eta sortutako enpleguari esker.
- Alabaina, susperraldi ekonomikoaren ondorioak eta onurak ez dira berdin iritsi familia guztietara, eta oraindik ere asko dira Caritasen laguntza behar duten pertsonak (Memorian jasotako datuak).
- Gogoan izan behar dugu **bazterkerian** dauden 3 pertsonatik 2, krisiaren aurretik zeudela egoera horretan (Foessa txostena).
 - o Horrek adierazten du, egoerak hobetzeko izan diren dinamika sozialak gorabehera, biztanleriaren zati batek, egituraz, gizartetik baztertuta egoteko arriskuan edo gizartetik baztertuta jarraitzen duela.
- Zer diren gauzak, krisiak gehien kaltetutako etxeetan nabaritzen dituzte gutxien ziklo ekonomiko berriaren ondorioak (Foessa, 2017ko ekaina).
- Euskadin pertsona eta familia askok oraindik zailtasunak dituzte etxebizitza eskuratzeko eta etxebizitzari behar bezala eusteko.
- Gogoan izan behar dugu, orobat, familia- eta gizarte-sareek gizarte honetan duten garrantzia; izan ere, isolamendu- eta bakardade-egoerak esanguratsuak dira.
 - o Bakarrik bizi diren pertsonen %6,4k ez du familiaren babesik.
- Horrez gain, ikusi dugu gazte eta familia gurasobakar amadun gero eta gehiago daudela premia-egoeran, zaintzak, prestakuntza eta enplegua bateratuko dituen familia-proiektu bat garatzeko zailtasunekin, eta kezkarria iruditzen zaigu bilakaera hori.

¹ CARITAS GIPUZKOAN laguntzak jaso dituzten etxeetan bizi diren pertsona guztiak.

ERREALITATE HORI ERALDATZEKO ERANTZUNAK:

CARITAS GIPUZKOAtik egoera sozial eta datu horiek aldatzeko lan egiten du. Ezin dugu etsi eta ezin dugu pobrezia fenomeno “naturalizat” onartu, eta ezin diogu uko egin pertsona guztiek merezi duten duintasunari eta bizitza-proiektuari.

Caritas premia larriena duten pertsonekin dago, gu haien ondoan egotea behar dutenekin, eta pobrezia kontrako irtenbidearen parte izan nahi du. Hori dela eta, hauen alde egiten dugu:

1.- EKONOMIA SOLIDARIOA

- Ekonomia Solidarioaren alde egiten dugu, pertsonak eta herriak ekonomiaren ardatz hartuko dituen ereduaren alde. Ekonomia funtsezkoa da pertsonen eta familien garapenerako; hori dela eta, ekonomiak balio hauek hartu behar ditu oinarrian: giza eskubideak, planetaren baliabideen zaintza, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua eta finantza etikoak.
- Ahulezia-egoeran dauden pertsonak EKONOMIA SOLIDARIOAN OINARRITUTAKO ENPLEGU-EREDU baten bidez GIZARTERATU behar ditugula uste dugu, horrek arrakasta ekarriko baitu. Eta, alde horretatik, prozesu horietara bideratutako arlo bat jarri dugu martxan; SAREA FUNDAZIOAren eskutik egiten dugun esku-hartzea indartzen du arlo horrek.
- Gizarteratzea, laneratzea eta prestakuntza helburu duten ekimen horietara bideratu behar da datozen urteetako inbertsio publikoa, baita beren kargura mendekotasuna duten pertsonak, adingabeak edo gaixoak dituzten familien kasuan lana eta familia-bizitza uztartzeko ekimenetara ere.
- Posible da jarduera ekonomiko iraunkorra egitea, solidaritatearen eta justiziaren printzipioetan oinarritua, pertsona guztien (baita egoera prekarioenean dauden pertsonen) ongizatea eta garapena bermatzeko.
 - Inklusioan oinarritutako enplegua bultzatu behar da / enplegu babestua.
 - Pertsona batzuei lagundu eta lan-arloko orientazioa eman beharko zaie berriro, atzera lan-merkatuan sar daitezen.
 - Beste batzuek laguntza handiagoa beharko dute lan-inguruneetara hurbiltzeko.
 - Eta beste pertsona batzuek, ziurrenik, zaila izango dute lana aurkitzea eta, beraz, beste bide batzuetatik bultzatu beharko da haien aktibazio soziala, eta gizarteari ekarpena egiteko modua.
 - Prestakuntza-ekintzak bideratu eta egokitu behar dira pertsonen lan-merkatura sartzen laguntzeko.
 - Administrazio publikoek, eskualdeko garapen-agentziek, enpresa pribatuek eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeek lankidetzan jardun behar dute bizitza-proiektuen sostengu diren enplegu inklusibo mota horiek garatzeko.

Testuinguru horretan egingo da **Corpuseko gure kanpaina**, pertsona guztiek hobekuntza sozial hori lor eta berreskura dezaten eragile sozial eta ekonomiko guztiok dugun **erantzukizun sozialari** erantzunez.—LOR DEZAGUN PERTSONA GUZTIEN EGOERA SUSPERTZEA—

2.- ETXEBIZITZA, OINARRIZKO BEHARRA

- Gizarte- eta egoitza-bazterkerian dauden pertsonak integratzeko, guztiz premiazkoa da etxebizitza bat eskuratzea eta horri behar bezala eustea bultzatuko duten politika publikoak garatzea. Horretarako, alokairu soziala sustatu behar da, eta eskubide subjektibo hori bermatzen duen euskal legeari buruzko informazio gehiago eman.
- Gero eta kezkatuago gaude baliabide sozial honekin ere, eta, horren ondorioz, lanean ari gara etxebizitzaren inguruko arlo berri bat garatzeko.

3.- EZINBESTEKO LAGUNTZA-PROZESUAK

- Administrazio publikoen eta eragile ekonomiko eta sozialen erronka da egoera ahulean eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen, beren konplexutasunagatik, gizarteratzeko bidean arrakasta izango badute, laguntza behar dutela onartzea eta ulertzea.
- Era berean, bakardade-egoeran (ahulezian) dauden pertsonen laguntza emateko baliabideak ere jarri behar ditugu.
- Eta, alde horretatik, Caritasek aldatu egin du barne antolaketa, egoera ahulenean dauden pertsonak bizi diren auzo eta hirietara gerturatzeko, eta hala, elizbarrutietako Caritasen egiten gunden lana sendotu dugu, eta, era berean, pertsonak sustatzeko eta ahalduzko bidean haiei laguntzeko zereginak ere bultzatu ditugu.

GURE GIZARTEKO ERANTZUN SOZIAL ESTRATEGIKOENAK:

Harrera egin eta laguntza ematen diegun pertsonen errealitatea zein den kontuan hartuta, uste dugu administrazio publikoak, eragile ekonomiko sozialek eta, oro har, gizarteak, hauen alde egin behar duela:

- Babes sozialeko sistema baten alde, egoera ahulenean dauden pertsonen laguntzeko eta, aukerak (biziraupena eta enplegua) emanez, haien babesa eta gizarteratzea indartzeko. Gogoan izan behar dugu babes-sistemak laguntza ematen diela haurrak dituzten familia eta etxe askori, haur horiek beste adingabekoen aukera berak izan eta jaso behar baitituzte.
- Etxebizitza-plan egoki baten alde, alokairu sozialeko etxebizitzak bideratzeko eta prestazio sozialak ahalbidetzeko, egoera ekonomiko prekarioagoan dauden etxebizitza bat alokairuan hartzeko eta mantentzeko aukera izan dezaten.
- Gizarte-zerbitzuen garapen handiago baten alde, batez ere udal zerbitzuei dagokienean, arrisku-egoeran eta egoera ahulean dauden pertsonen prebentzio-lan handiagoa egiteko eta haien ondoan egiteko.
- Eta, azkenik, uste dugu beharrezkoa dela nazioarteko lankidetzan gastua pixkanaka handitzea, %0,7ra iritsi arte, beste herri eta herrialde batzuen garapena eta ongizatea bultzatzeko.

